



AIARAKO UDALAK 2023ko EKAINAREN 26an EGINIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA

UDALBURUA

Prudencio Otegui Echevarría jn.

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez and.
Iratxe Parro Uzquiano and.
Izaskun García Aresti and.
Irantzu Apodaca Sánchez and.
Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
Itxaso Gorbeña Allende and.
Unai Campo Arenaza jn.

Arespalditzan eta Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 26ko goizeko bederatzia eta erdietan, Udalbatza Osoa eratu zen aparteko udalbatzaren ekitaldian. Deialdia egin da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturiko aurrerapenez eta Gentza Alamillo Udaeta alkatea batzordeburua da eta alboan aipatzen diren zinegotziak bertan dira, Naiara Lazpita Marcos idazkariak lagunduta.

BERTARATU EZ DIRENAK

Iñigo Fraile Almanchel jn.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongiatorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak eratzeko mahaiburuak eta mahaikideak izendatzea, 2023ko uztailaren 23an egingo dena.

IKUSI DA.- 2023ko maiatzaren 30ean, maiatzaren 29ko 400/2023 Errege Dekretua argitaratu zela EAOko 128. zenbakian, 2023ko uztailaren 23an Diputatuen Kongresurako eta Senaturako egingo diren hauteskunde orokorretarako deialdia egiten duena.

IKUSI DA.- Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikulua araberak, hauteskunde-mahaiaren eraketa udalen eskumena dela, beti ere eskualdeko hauteskunde-batzordeek gainbegiratuta.

IKUSI DA.- Hauteskunde Batzorde Zentralak artikulua hori interpretatzeko doktrina sendoa ezarri duela, eta adierazi du Udalbatzari dagokiola soilik zozketa egitea.



KONTUAN HARTU DA.- Mahai bakoitzeko mahaiburua eta mahaikideak zozketa publiko bidez izendatzen direla mahai bakoitzeko hautesle-zerrendan dauden pertsona guztien artean.

IKUSI DA.- Aurrekoa ikusita, jarraian zozketa hori egin da.

Zozketa egin ondoren, Udalbatza Osoak, bertaratutako kideak bat etorrira, **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Mahaiburuak eta mahaikideak (titularrak eta ordezkokoak) honako hauek izendatzea:

– **BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001 MAHAIA: A**

MAHAIBURUA:	SABIN GUARESTI ABIZKETA
MAHAIBURUA LEHENENGO ORDEZKOA:	JULEN IBARROLA GOBANTES
MAHAIBURUA BIGARREN ORDEZKOA:	VANESSA GARCIA LOPEZ
MAHAIBURUA HIRUGARREN ORDEZKOA:	KOLDOBIKA GONZAGA DAOUZA SALCEDO
MAHAIBURUA LAUGARREN ORDEZKOA:	RUBEN ALVAREZ GONZALEZ
LEHENENGO MAHAIKIDEA:	SHEILA GARCIA MALUENDA
1. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	JAGOBA GARCIA URQUIJO
1. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	AGER BARTOLOME OSEGUERA
1. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	EPIFANIO ARROYO CONDE
1. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	FRANCISCO JAVIER CACERES GRAUPERA
BIGARREN MAHAIKIDEA:	RAFAELA CORTES HERNANDEZ
2. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	BEGOÑA BERAZA ARZA
2. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	MIKEL DURANA PEREZ
2. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	MARIA FELISA BERAZA ARZA
2. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	JUNCAL ANGULO MARTINEZ

– **BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001 MAHAIA: B**

MAHAIBURUA:	MARIA VICTORIA SERRANO BERMEJO
MAHAIBURUA LEHENENGO ORDEZKOA:	MERCEDES SERRANO CANELAS
MAHAIBURUA BIGARREN ORDEZKOA:	AMAIA PADILLA ETXARRI
MAHAIBURUA HIRUGARREN ORDEZKOA:	ROSARIO SILES RAMIREZ
MAHAIBURUA LAUGARREN ORDEZKOA:	SONIA MOSQUERA FERNANDEZ
LEHENENGO MAHAIKIDEA:	LEIRE TELLAECHÉ SAUTUA
1. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	FRANCISCO PERESZ CARREIRA
1. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	LAURA RODRIGUEZ BROGERAS
1. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	JOSE ANTONIO MARTIN ORTUETA
1. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	DIANA VILLANUEVA HERVAS



BIGARREN MAHAIKIDEA:	MIGUEL ANGEL MENOYO JAUREGUI
2. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	AINZANE OYARZABAL AJA
2. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	MIKEL MENOYO BASALDUA
2. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	JOSE ANGEL URQUIJO ABASOLO
2. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	MARIA MONTSERRAT MENDIA URQUIJO

– **BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 001 MAHAIA: C**

MAHAIBURUA:	NERA EGUSQUIZAGA ARMENDARIZ
MAHAIBURUA LEHENENGO ORDEZKOA:	JESUS VICTOR ISASTI CARRANZA
MAHAIBURUA BIGARREN ORDEZKOA:	ESMERLIN NICOL ROSARIO NUÑEZ
MAHAIBURUA HIRUGARREN ORDEZKOA:	ARANTXA GUTIERREZ MENDIVIL
MAHAIBURUA LAUGARREN ORDEZKOA:	LEIRE CESPEDES CAMPO

LEHENENGO MAHAIKIDEA:	ANNE ZURIMENDI GANZEDO
1. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	PEDRO GARCIA FERNANDEZ
1. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	ANGEL CESPEDES PEREZ
1. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	JUAN ANTONIO JIMENEZ JIMENEZ
1. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	LUIS ALBERTO GONZALEZ TORRES

BIGARREN MAHAIKIDEA:	ALFONSO PATRICIO HERNANDEZ PEREZ
2. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	UNAI URQUIJO ZURIMENDI
2. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	ANA MARIA ALAYO BILBAO
2. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	OLATZ ZURMIENDI GANZEDO
2. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	PEDRO MARIA GAUNA DIEGO

– **BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 002 MAHAIA: A**

MAHAIBURUA:	ELENA BASTERRA ORTIZ
MAHAIBURUA LEHENENGO ORDEZKOA:	JON MIRENA ARRUZA DAVID
MAHAIBURUA BIGARREN ORDEZKOA:	MARIA LOURDES ARROYO VILORIA
MAHAIBURUA HIRUGARREN ORDEZKOA:	IRMA MARIA BASTERRA UGARRIZA
MAHAIBURUA LAUGARREN ORDEZKOA:	MIREN GOTZONE ARBERAS PILDAIN

LEHENENGO MAHAIKIDEA:	CARLOS JAVIER GARCIA ROBLES
1. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	ISABEL GORDO JARILLO
1. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	MANUEL DOMINGUEZ SEOANE
1. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	MAITE HERNANDEZ LOPEZ
1. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	EKAITZ ETXEBARRIA GONZALEZ

BIGARREN MAHAIKIDEA:	NATALIA GARMILLA MARCUARTU
2. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	ALICIA GUTIERREZ HERNANDEZ
2. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	IVAN GORMAZ GARRIDO
2. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	ENDIKA BASABE UNZAGA
2. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	ESTIZEN GORDON RUIZ



– **BARRUTIA: 01 SEKZIOA: 002 MAHAIA: B**

MAHAIBURUA:	JESUS MARIA ROSA MARTIN
MAHAIBURUA LEHENENGO ORDEZKOA:	MARIA BEGOÑA UNZAGA LANDETA
MAHAIBURUA BIGARREN ORDEZKOA:	RAQUEL PEREZ MATEOS
MAHAIBURUA HIRUGARREN ORDEZKOA:	ENARA LADISLAO PERELLO
MAHAIBURUA LAUGARREN ORDEZKOA:	SALOME BEGOÑA MUÑOZ ABAD
LEHENENGO MAHAIKIDEA:	IKER REKETA ELUSTONDO
1. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	AMADA MONASTERIO NUÑEZ
1. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	JENNIFER RUBIO SANCHEZ
1. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	MIREN ZURIÑE PERELLO LADISLAO
1. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	MARIA CRISTINA OTAOLA ANGULO
BIGARREN MAHAIKIDEA:	EDURNE RUIZ ELEJALDE
2. MAHAIKIDEA LEHENENGO ORDEZKOA:	FRANCISCO JAVIER ROJAS RODRIGUEZ
2. MAHAIKIDEA BIGARREN ORDEZKOA:	MARIA MONTSERRAT MAGRACH OLABARRIA
2. MAHAIKIDEA HIRUGARREN ORDEZKOA:	ASIER UZQUIZA GONZALEZ
2. MAHAIKIDEA LAUGARREN ORDEZKOA:	AINHOA VEGA REQUEJO

BIGARRENA.- Izendapen horren berri interesatuei ematea. Jakinarazpenarekin mahaietako kideei beren funtzioei buruzko jarraibideen eskuliburua emango zaie, Hauteskunde Batzorde Nagusiak gainbegiratuta.

2.- Aiarako udalerriko eraikin publikoen garbiketa-zerbitzuen kontratu irekiaren esleipena onartzea, hala badagokio.

Karmele Pobcion Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du eta euskaraz azaldu du puntu honi buruzko akordioaren proposamena. Adierazi du esleipendun gisa ASE PLUS enpresa proposatu dela. Hala ere, aurreikusita dago adjudikazioaren aurkako errekurtsoa jarriko dutela, eta, beraz, kontratuaren sinadura atzeratu egin daitekeela.

Idazkari andreak hitza hartu eta izapidetu den prozedura azaldu du labur-labur. Azaldu duenez, kontratazio mahaiak Limpiezas Abando enpresa kanpoan uzteko egin zuen proposamenari (prezio baxu ausartegi bat aurkeztu zuelako) errekurtsoa jarri zion enpresak KEA Ori, hau da, kontratu-errekurtsoa ebazteko organo autonomikoari. Beraz, esleipena ere errekurritu egingo dela ematen du. Hori gertatzen bada prozedura eten egingo da eta ez da formalizatuko ebazpena iritsi arte.

Horri buruzko beste iruzkinik egin gabe, gai hori bozkatu da eta bertaratutako korporazioko kideek aho batez onartu dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10 zinegotzi egon dira).

Eta, horren arabera eta



IKUSI DA.- 2022ko azaroaren 16an Alkateak baliabide eskasia, justifikazio eta espedientearen hasiera justifikatzen dituen justifikazio txostena eman zuela. Halaber, egin ziren **prozedura irekiaren bidezko erregulazio harmonizatuak araututa dagoen Aiarako udalerriko eraikin publikoen garbiketa zerbitzuaren** kontratua esleitzeko prozedura arautu behar duten berariazko klausula administratiboen plegua eta baldintza teknikoaren plegua. Idazkari-kontu hartzaileak aldeko irizpena eman du aipatu espedienteari buruz.

IKUSI DA.- 2022ko azaroaren 17an, Udalbatza Osoak, ohiko bilkuran, “Aiarako Udalaren udal eraikinen garbiketa” zerbitzuaren kontratua, prozedura irekiaren eta ohiko tramitazioaren bidez, esleitzeko kontratazio-espedientea onartzea erabaki zuela. Horrekin batera, lizitaziorako oinarriko aurrekontua onartu zuen, gehienez 147.442,94 €-ko kopuruan, eta administrazio-klausula partikularren plegua eta preskripzio teknikoaren plegua.

IKUSI DA.- Lizitazio hau udal honetako kontratatzailearen profilean (Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoena) argitaratu zela, eta Kontratazio Mahaiak 2023ko urtarrilaren 30ean egindako aktaren arabera, lizitazio elektronikora honako hauek aurkeztu zirela:

- o LIMPIEZA Y MANTENIMIENTO IMPACTO SL
- o COMERCIAL DE LIMPIEZAS AREETA SL
- o GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO SL
- o SERVICIOS GLOBALES ARABA SL
- o URBEGI AEE
- o ASE PLUS SL
- o LIMPIEZAS ABANDO
- o CLYMAGRUPJCT SL

IKUSI DIRA.- Kontratazio Mahaiaren aktak, 2023ko urtarrilaren 30eko, otsailaren 6ko, martxoaren 9ko eta apirilaren 26ko bilerei dagozkienak. Eta bilera horietan, lizitaziora aurkeztu diren enpresen “A”, “B” eta “C” GUTUNAZAL ELEKTRONIKOA irekitzeko jarduerak egin direla.

2023ko martxoaren 9an, balio-judizioaren mende dagoen adjudikazio-irizpidearen balorazioaren emaitza jakinarazi da eta “C” gutun-azal elektronikoa (Balorazio automatikoko irizpideak) ireki da: *Kontratazio Mahaiak uste izan du, Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako parametro objektiboaren arabera, A.1) “AURKEZTUTAKO ESKAINTZA EKONOMIKO HOBERENA” eta A.3) “ORDUKO PREZIOA APARTEKO LANENGATIK” esleipen-irizpideei dagokienez, LIMPIEZAS ABANDO SL, enpresak eta PLUS SL enpresak, hurrenez hurren, aurkeztu duten eskaintza merkeegia izan dela adierazitako adjudikazio irizpideak kontuan hartuta, eta bideraezintzat jo daitekeena, Klausula Ekonomiko Administratiboen Pleguko 13.A.1 eta 13.A.3 klausuletan jasotakoaren arabera.*

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz, lizitatzailerari eskatuko dio bere eskaintza justifikatzeko, gehienez ere 5 egun balioduneko epean, jakinarazpena bidaltzen zaionetik hasita, lizitazioa arautzen duten klausula ekonomiko administratiboen pleguan ezarritakoaren arabera.



IKUSI DA.- 2023ko apirilaren 24ko data duela idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena. Txosten hau Eraikin publikoetako garbiketa zerbitzuaren lizitazioan baja ausartekoen presuntzioa duten proposamen ekonomikoak justifikatzeko LIMPIEZAS ABANDO SL eta ASE PLUS SL lizitatzailleek haiei emaniko epean aurkeztutako dokumentazioari buruzko da. 2023ko apirilaren 26an Kontratazio Mahaiaren akta egin zen; horren arabera, 2023ko apirilaren 24an, Mahaiak eratu ondoren, enpresa lizitatzailleek baja ausartekotzat jotako eskaintzei buruz aurkeztutako justifikazioak aztertzen dira.

Eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren lizitazioan baja temerarioen susmoa duten proposamen ekonomikoak justifikatzeko emandako epean LIMPIEZAS ABANDO SL eta ASE PLUS SL lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, 2023/04/24ko data duela idazkari-kontuhartzaileak emaniko txosten teknikoarekin bat eginda, Mahaiak honako hau erabaki du:

- LIMPIEZAS ABANDO SL enpresak aurkeztutako justifikazioa eta eskaintza anormal edo neurrigabea gaitzestea eta, beraz, aurkeztutako eskaintza kanpoan uztea.

- ASE PLUS SLk aurkeztutako justifikazioa ontzat ematea, bere proposamenaren bideragarritasuna bermatzen baitu eta aurkeztutako eskaintza onartzea.

Enpresa lizitatzaille bakoitzak lortutako puntuazioa ikusita, kontratazio-mahaiak ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA ASE PLUS SLri esleitzea proposatu du. [...]

IKSI DIRA.- Lizitazioan arautzen duten berariazko klausula administratiboen pleguko 13. klausulan xedatutakoaren arabera aurkeztutako eskaintzak, gutzizko puntuazio hau lortu dute:

LIZITATZAILEA	Balio Judizioaren bitartez baloratzeko irizpidea	Balorazioa automatikoko irizpideak	Puntuazioa guztira
ASE PLUS SL	17,05	72,53	89,58
GARBINOY LIMPIEZAS YMANTENIMIENTO SL	15,93	67,13	83,06
CLYMRUP JCT SL	20,32	62,32	82,64
LIMPIEZA YMANTENIMIENTO IMPACTO SL	18,71	62,48	81,19
URBEGI ABEE	14,59	65,87	80,46
COMERCIAL OELIMPIEZASAREETA SL	20,51	57,25	77,76
SERVICIOSGLOBALESARABA SL	13,64	63,13	76,77

GERTATU DA.- Kontratazio mahaiak proposatu duela LIMPIEZAS ABANDO SLk aurkeztutako justifikazioa ezestea, eta, beraz, aurkeztutako eskaintza hori kanpoan uztea; eta **AIARAKO UDALERRIKO ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA** esleitzea ASE PLUS SLri, egindako eskaintzan agertzen diren baldintzetan eta administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen pleguetan zehaztutakoetan. Eskaintza hori EHUN ETA HAMABOST MILA ETA HAMASEI EURO (115.016,00 €) gehi BEZari dagozkion HOGEITA LAU MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU ETA HOGEITA HAMASEI EUROKOAK (24.153,36 €) da.



KONTUAN HARTU DA: 2023ko apirilaren 26an, esleipendun gisa proposatutako ASE PLUS SL lizitatzaileri eskatu zaiola kontratua esleitzeko behar den dokumentazioa aurkez dezan, administrazio alorreko klausulen orriaren 17.3.5 klausularen arabera.

KONTUAN HARTU DA.- ASE PLUS SL enpresak behin betiko fidantza eta eskatutako gainerako agiriak aurkeztu dituela.

KONTUAN HARTU DA.- Kreditu nahikoa eta egokia dagoela 2023ko udal aurrekontuan.

KONTUAN HARTU DA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, toki erakundeetako kontratazioaren arloko eskumenei buruzkoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

AZTERTU DA.- Espedientearen dokumentazioa eta harekin bat etorritz eta toki erakundeetako kontratazioaren arloko eskumenei buruzko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa kontuan hartu da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua.

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU:**

“**LEHENENGOA.-** LIMPIEZAS ABANDO SLren justifikazioa ezestea. eta, beraz, aurkeztutako eskaintza kanpoan uztea, Kontratazio Mahaiak 2023ko apirilaren 24an egindako proposamenaren arabera (2023ko apirilaren 26ko akta).

BIGARRENA.- *ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA* (ESP. 2022/10/S02.03.00.08) ASE PLUS SLren alde. egindako eskaintzan agertzen diren baldintzetan eta administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren pleguetan zehaztutakoetan (zenbatekoa: EHUN ETA HAMABOST MILA ETA HAMASEI EURO (115.016,00 €), gehi HOGEITA LAU MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU KOMA HOGEITA HAMASEI EURO (24.153,36 €) BEZari dagokionez; Kontratazio Mahaiak 2023ko apirilaren 24an egindako proposamenarekin bat etorritz (akta, 2023ko apirilaren 26koa).

HIRUGARRENA- Kontratazio Mahaiak 2023ko apirilaren 24an egindako proposamenarekin bat etorritz (2023ko apirilaren 26ko akta), honako ezaugarri eta abantaila hauek erabakigarriak dira aipatu esleipendunek aurkeztutako eskaintzak aukeratzeko, onartu ziren eskaintzak jaso zituzten gainerako lizitatzailerek aurkeztutakoak baino lehenago:



I. Eranskina

LIZITATZALEA	A.1. ESKAINTZA EKONOMIKO ONENA		A.2. DISPOSIZIO LIBREKO ORDU POLTSA		A.3. APARTEKO LANENGATIKO ORDUO PRZIOA		A.4. HOBEKUNTZAK •		PUNTUAZIOA GUZTIRA
	PREZIOA	PUNTUAZIOA	URTEKO ORDUAK	PUNTUAZIOA	PREZIOA/O RDUJ	PUNTUAZIOA	HOBEKUNTZAK •	PUNTUAZIOA	
ASEPLUSL	115.016,00€	32,53	50	10	8,00€	15,00	ABCD	15	72,53
GARBINDU LIMPIEZAYMANTENIMIENTO SL	106.890,25 t	35,00	50	10	16,82€	7,13	ABCD	15	67,13
URBEGI ABEE	119.416,60 t	31,33	50	10	12,58€	9,54	ABCD	15	65,87
SERVICIOSGLOBALES ARABA SL	116.000,00 t	32,25	50	10	20,40€	5,88	ABCD	15	63,13
LIMPIEZAYMANTENIMIENTO IMPACTO SL	114.006,85 t	32,82	50	10	16,76€	7,16	ABC	12,5	62,48
CLYMAGRUPJCTSL	119.482,46 t	31,31	50	10	19,96€	6,01	ABCD	15	62,32
COMERCIALDELIMPIEZASAREET A SL	116.000,00 t	32,25	50	10	20,81 e	0,00	ABCD	15	57,25

II. Eranskina

LIZITATZALEA	Balio Judizioaren bitartez baloratzeke irizpidea	Balorazio automatikoko irizpideak	Puntuazioa guztira
ASE PLUS SL	17,05	72,53	89,58
GARBINDU LIMPIEZAS YMANTENIMIENTO SL	15,93	67,13	83,06
CLYMAGRUP JCT SL	20,32	62,32	82,64
LIMPIEZA YMANTENIMIENTO IMPACTO SL	18,71	62,48	81,19
URBEGI ABEE	14,59	65,87	80,46
COMERCIAL OELIMPIEZASAREETA SL	20,51	57,25	77,76
SERVICIOSGLOBALESARABA SL	13,64	63,13	76,77

LAUGARRENA.- Dagokion gastu hau xedatzea: EHUN ETA HAMABOST MILA ETA HAMASEI EURO (115.016,00 €), gehi HOGEITA LAU MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA HAMASEI (24.153,36 €), BEZari dagozkionak.

BOSGARRENA.- Kontratuaren iraupena BI URTEKOA (2) izango da. Kontratuak urtebeteko hiru (3) luzapen izan ditzake, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapen horiek irauten duten bitartean, eta 203. artikulutik 207. artikulura ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketak alde batera utzi gabe. Kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da bost (5) urtetik gorakoa izan.

SEIGARRENA.- Kontu hartzailezari eta Diruzaintzari ebazpen honen berri ematea, kontabilitateko oharpen egokiak egin ditzaten.

ZAZPIGARRENA.- Esleipenaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzea 15 eguneko epean, SPKLren 151. artikulurekin bat etorriz.

ZORTZIGARRENA.- Adjudikazioa jakinarazi esleipendun gertatu ez diren lizitatzaleei.

BEDERATZIGARRENA.- Kontratuaren esleipendun den ASE PLUS SLri erabaki hau jakinaraztea.



Kontratu honen aurrean SPKLren 44.1 artikulua arabera kontratazio-arloko errekurtsio berezia jar dakiokenez, kontratua ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileri bidaltzen zaienetik hamabost (15) egun baliodun igaro baino lehen, errekurtsio hori epe horretan jar daiteke (SPKLko 153. artikulua). Kasu horretan kontratazio-prozeduraren izapideak etengo dira errekurtsioa ebatzi arte, eta ebazpen hau zeina aipatutako legearen 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera garatuko da.

Hamabost egun horiek igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, esleipendunari eskatuko zaio kontratua formalizatzeko egutegiko bost (5) eguneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

HAMARGARRENA.- Kontratua formalizatu ondoren, kontratuaren formalizazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratua sinatu eta gehienez hamabost (15) eguneko epean, SPKLren 154. artikuluaekin bat etorriz. Halaber, kontratua formalizatzeko iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, gehienez kontratua formalizatu eta 10 egun igarota.

HAMAİKAGARRENA.- Alkate-Udalburuari erabaki hau betearazteko behar diren ebazpenak hartzeko ahalmena ematea.

HAMABIGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari kontratuaren oinarriko datuak jakinaraztea, esleipendunaren izena, esleipenaren zenbatekoa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion banakapena barne, SPKLren 346. Artikuluaekin bat etorriz.

3.- Hala badagokio, onartzea udal korporazioaren eta bere funtzioak betetzen ari den kargu hautetsiaren zerbitzura dagoen pertsonaren ordezkari hitza judizialeko gastuetarako kalteordaina.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz azaldu du erabaki-proposamena, esanez Aseguruak ez diela aurre egingo defentsa judizialaren gastuei epaia irmoa izan arte, eta, oraingoz, bigarren prozedura judizial bat izapidetzen ari denez enpresak lehenengo epaiaren aurka errekurtsioa jarri duelako, Udalak bere gain hartzen du gastuen ordainketa; horrenbeste, aseguruaren zenbatekoa kobratu arte aurreratuko ditu.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta euskaraz esan du bi aldiz eman dietela arrazoia, Ministerio Fiskalak ere arrazoia eman zuelako. Halaber gaineratu du gai hau aurreko legegintzaldiko batzorde informatiboren batean aipatu zela, eta gaineratu du ez dela beragatik, kargu politikoa delako, baina bai aurreko idazkari eta arkitektoarengatik, horiek ere salatuak izan baitira, eta hau beren lana egiteagatik heldu zaiela. Aurreko legealdiko zinegotziek ez dute inoiz prozesu judizial horien egoeraz galdetu, eta haiek eta apur bat bakarrik sentitu dira prozedura honetan zehar.

Horri buruzko beste iruzkinik egin gabe, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onartu duten gaia bozkatu da (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertaratu dira).

Eta horren arabera, eta



IKUSI DA.- 2023ko ekainaren 5ean (2483 zenbakiko RE), Maria Del Carmen Rojo Pitillas andreak Aiarako Udalari eskatu ziola ordain zitzala Zorroza Gestión SLren kereilak eragindako defentsa juridikoko ordainsariak, Figuerido&Martin Abogados bulegoak (Lersundi kalea, N-1, 1. eskuina, Bilbo) bidali zituenak.

IKUSI DA.- 2023ko ekainaren 13an, jarduneko alkateak, Genzta Alamillo Udaeta jaunak, Zorroza Gestión SLren kereilak eragindako defentsa juridikoko ordainsariak ordaintzeko eskatu ziola Aiarako Udalari. Zerbitzu zari hauek Figuerido&Martin Abogados abokatu-bulegoak (Lersundi kalea, N-1, 1. eskuina, Bilbo) bidali zituen bere defentsari dagozkionak.

IKUSI DA.- Zorroza Gestión SL-k Amurrioko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. Epaitegian kereila bat jarri zuela Aiarako alkatearen (Gentza Alamillo Udaeta) aurka, arkitekto aholkulariaren aurka eta Mari Carmen Rojo Pitillas idazkari kontu-hartzailearen aurka, Genzta Alamillo jauna udaleko alkatea eta Mari Carmen Rojo andrea izan diren urteetan izapidetutako administrazio-prozedurei dagokienez, prebarikazio administratiboaren balizko delitua egitegatik.

IKUSI DIRA.- Espedientean dauden interesatuek esandako egintzak.

KONTUAN HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzaileak 2023ko ekainaren 23an egindako kalte-ordaina onartzearen aldeko txostena, espedientean jasota dagoena.

KONTUAN HARTU DA.- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 141.2 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testuategina onartzen duena; Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 161. artikulua; Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 2. artikulua; azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 13.5 artikulua, Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua arautzen duena; eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.4 artikulua.

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Onartzea 2019tik 2023ra bitartean Udaleko alkate izan zen Genzta Alamillo Udaeta jaunaren eta 2018ko maiatzetik 2021eko ekainera bitartean udaleko idazkari izan zen Mari Carmen Rojo Pitillas andrearen aldeko kalte-ordainaren ordainketa, Zorroza Gestión SLren kereilak eragindako defentsa juridikoko ordainsarien gastuetarako. Ordainsari hauek Figuerido&Martin Abogados bulegoak (Lersundi kalea, N-1, 1. eskuina, Bilbo) bidali zituen. Etaa zuzen ordaintzea.

BIGARRENA.- 4.840 €-ko aurrekontuko aplikazioa gaitzeko behar den aurrekontu-aldaketa egitea eta aipatutako zenbatekoko gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.



4.- Hala badagokio, Aiarako Udalaren 2023. urteko Aurrekontuaren hasierako onarpenari aurkeztutako alegazioa ezestea eta behin betiko onartzea.

Karmele Pueblo Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du eta euskaraz azaldu du erabaki-proposamena, eta adierazi du aurkeztutako alegazioak ez duela oinarririk eta, idazkaritzaren txostenaren arabera, bidezkoa dela ezestea.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onartu duten gaia bozkatu da (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10).

Eta horren arabera, eta

IKUSI DA.- 2023ko maiatzaren 18an Udalaren Osokoak hasiera batean onetsi zuela udal aurrekontua 2023rako, horren iragarkia maiatzaren 29ko ALHAOn, 62. zenbakian, argitaratu zela.

IKUSI DA.- Jendaurrean egon den bitartean Pablo Javier Imaz Isasi jaunak sinatutako erreklamazioa aurkeztu dela (2726 zk.ko E.D., 2023ko ekainaren 15ekoa). Eta erreklamazio horretan honako hau idatzita dago hitzez hitz:

“Aiarako osoko bilkuraren aurrean 2023ko aurrekontu orokorraren hasierako onarpenaren kontra egiten dut.

Langileen gastuen atalean arkitekto bat ageri da langile lan-kontratadunetan.

Eta ez dator bat errealitatearekin.”

KONTUAN HARTU DA.- Idazkaritzak 2022ko ekainaren 22an egindako txostena, aurkeztutako erreklamazioa ezestea proposatzen duena,

KONTUAN HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 17. artikuluan eta harekin bat datozenetan ezarritakoa,

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Pablo Javier Imaz Isasi jaunak aurkeztutako erreklamazioa ezestea (2023ko ekainaren 15eko 2726 zenbakiko Errege Dekretua), erreklamazioa ez justifikatzeagatik eta Arabako Lurralde Historikoko Toki Entitatearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 17.2 artikuluan ezarritako baldintzak EZ betetzeagatik, idazkaritza-kontuhartzailtzak 2022ko ekainaren 22ko dataz eginiko txostenean ezarritako moduan. Txosten hori espedientean dago.

BIGARRENA.- Alegazio gehiagorik aurkeztu ez denez eta jendaurrean jartzeko epea amaitu denez, behin betiko onartutzat jo da 2023rako Udal Aurrekontua eta bere eranskin guztiak. ALHAOn argitaratu ondoren jarriko da indarrean aurrekontu hori.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuari jakinaraztea, kontu-hartzaitzako 2023ko ekainaren 22ko txostenarekin batera.



5.- Kreditu gehigarriaren espedientea onartzea, hala badagokio, Osoko Bilkuraren bidez.

Karmele Pueblo Martínez andreak (EH BILDU) hitza hartu du eta euskaraz azaldu du akordio proposamena.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onartu duten gaia bozkatu da (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10).

Eta horren arabera, eta

IKUSI DA.- 2022ko aurrekontuaren likidazioak gastu orokorretarako ekarri duen diruzaintzako geldikinaren zati bat erabili beharra, 2023rako gastuen aurrekontuan existitzen ez diren partida berriak sortzeko eta 2024ra arte itxaron ezin diren gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaitzak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako toki-erakundearen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren arabera (17/2014 FAK aldarazi zuena). Txosten hori osoko bilkurari helaraziko zaio kreditu-aldaketa honekin batera jakinaren gainean egon dadin.

KONTUAN HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Kreditu gehigarria onartzea ondoren aipatzen diren aurrekontu-aplikazioetan:

PARTIDA	IZENA	KOPURUA/€
336.481.000	ARANZADI ZIENTZIAK DIRULAGUNTZA EXCAVACIÓN BABIO	12.000,00
323.622.020	ETXAURREN IKASTOLAN LEIHOAK ALDATZEKO OBRA	71.518,30

KOPURU OSOA: 83.518,30 €.

Zenbateko hori ondoren zerrendatuta dauden baliabideek finantzatzen dute, eta espedientea parekatuta eta defizitrik sortu gabe aurkeztu da:



A. Gehitu beharreko diru-sarrerren partidak edo erabili beharreko diruzaintzako gerakina:

<u>Diru-sarren Partida</u>	<u>Izena</u>	<u>Kopurua/ €</u>
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	83.518,30 €.
	GUZTIRA	83.518,30 €.

Onartutako kreditu gehigarrien guztizkoa eta finantzatzen diren diru-sarrerren guztizkoa berdinak dira.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik ez badago, behin betiko erabaki hau hartzea. Erreklamaziorik badago, beste erabaki bat hartu beharko da, haiek onartu edo baztertzeko.

6.- Hala badagokio, 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea.

Karmele Pueblo Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du eta euskaraz azaldu du akordio-proposamena.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onartu duten gaia bozkatu da (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertaratu dira).

Eta horren arabera, eta

IKUSI DA.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, 2023ko ekitaldiari dagozkionak jasotzen dituen, 2023ko maiatzaren 18ko osoko bilkuran onartu zela, Udalaren 2023ko Aurrekontu Orokorraren eranskin gisa.

KONTUAN HARTU DA.- Aipatutako Plan Estrategikoaren I. Eranskinean kultura eta kirol arloko diru-laguntzen banaketa jasotzen dela.

KONTUAN HARTU DA.- Aiarako Udalaren interes publikoa dela Babioko aztarnategian indusketak eta egiten jarraitu nahi den azterlana sustatzea.

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU:**



LEHENENGOA.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina aldatzea (Kultura eta kirol arloko diru-laguntzen jarduera), aipatu eranskinean entitate edo pertsona hauei zuzeneko dirulaguntza gehituta:

- Diru-laguntza zuzena ematea Aranzadi zientzien elkarteari, Babio aztarnategian egiten jarraituko diren indusketa eta azterketa bultzatzeko. Diru-laguntza hori 12.000 eurokoa izango da eta 2023 urterako Udal Aurrekontuko 336.481.000 aurrekontu-aplikazioari kargatuko zaio, kreditu gehigarri bidezko aurrekontu-aldaketaren arabera”.

7.- Bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, Babioko aztarnategiaren azterketa eta indusketa arkeologikoa sustatzeko, 2023. urtean. Horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen da.

Karmele Pueblo Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du eta euskaraz azaldu du akordio proposamena.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta aurkeztu duten memoria alderdiei bidaltzeko eskatu du.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onartu duten gaia bozkatu da (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertaratu dira).

Eta horren arabera, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalak udalerrian antolatzen diren kultur adierazpen eta ekimenak sustatu eta bultzatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- 2023an Babio aztarnategiaren azterketa eta indusketa arkeologikoa sustatzeko Aiarako Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmenaren proposamena.

KONTUAN HARTU DA.- Hitzarmen honek Aiarako Udalaren dirulaguntza zuzena arautzen duela Aranzadi zientzien elkartearen alde, eta 2023rako luzatuta dagoen 2022ko udal aurrekontuan aurrekontu-aplikazio izendun bat dagoela hitzarmen hau sinatzeak Udalarari eragiten dion gastuari aurre egiteko behar besteko kreditu egokiarekin.

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Aiarako Udalaren eta Aranzadi zientzien elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, 2023ko ekitaldian Babio aztarnategiaren azterketa eta indusketa arkeologikoa bultzatzeko. Hitzarmen horren bidez, Aranzadi elkarteari 12.000 euroko diru-laguntza zuzena ematen zaio. Hona hemen hitzarmenaren testua:



AIARAKO UDALAREN ETA "ARANZADI" ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, BABIO AZTARNATEGIAREN 2023. URTEKO AZTERKETA ETA INDUSKETA ARKEOLOGIKOA BULTZATZEKO

Arespalditzan, 2023ko XXXXren XX(e)(a)n.

BILDU DIRA

Alde batetik, **PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA jauna**, AIARAKO UDALEKO alkate-udalburua, Naiara Lazpita Marcos udaleko idazkariak lagunduta. .

Bestetik, **JOKIN OTAMENDI AZURMENDI jauna**, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN (IFK: G-20059135) izenean. Elkarre hau Zorroagaina 11n (20014, Donostia – Gipuzkoa) helbideratuta dago, 1947an sortu zen eta Erakunde Publikoaren Elkarre 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 dekretuaren bidez izendatua izan zen.

PARTE HARTU DUTE

Lehenengoa, Aiarako Udaleko alkate-udalburua den aldetik eta horretarako gaitutako eta eskumena duen toki erakunde honen izenean eta ordezkartizan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoaren arabera.

Bigarrena, Aranzadi Zientzia Elkarrearen izenean eta ordezkartizan, IFK zk. : G-20059135; haren nortasuna eta ordezkagarritasuna sozietateak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuta daude.

Bi aldeek gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri, **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau eman eta betetzeko, eta

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Bi erakundeek alde aurretik lan egin dute Babioko (Aiara) aztarnategian, esku-hartze zientifikoak sustatuz.

BIGARRENA.- 1947an eratu zen Aranzadi Zientzia Elkarreak, bere estatutuen barruan jasota dagoen moduan, hainbat arrazoik eragin dieten ikerketa zientifikoak eta azterlan teknikoak egitea du oinarri, bai eta egindako lan horiek gizarteari oro har zabaltzea ere; hori guztia Arkeologia, Etnografia eta Natura Ondarea uneoro babestuz eta zainduz (Elkarrearen Estatutuak, 2002-03-25).

HIRUGARRENA.- Aranzadi Zientzia Elkarre irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Eta Eusko Jaurlaritzak 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 dekretuaren bidez herri onurako elkarre izendatu zuen.

LAUGARRENA.- Babio eta bertan dagoen aztarnategia Izoriako Administrazio Batzarraren jabetzakoak dira, eta bere borondatea eta helburuak dira bertako ondarea babesteko eta zabaltzeko konpromisoa hartzea.



BOSGARRENA.- Aranzadi Zientzia Elkarteko lagunek eta bazkideek egin dituzte Babion egin diren ikerketa zientifikoak. Azken urteotan Aranzadiko bazkideek eta ikasle taldeek landa-lanak eta azterketa arkeologikoak egin dituzte auzolan erregimenean.

SEIGARRENA.- Ezarri behar den legeria zehatz-mehatz betez eta Toki Erakundeei Lankidetzaz Hitzarmenak izenpetzeko dagoen gaitasuna erabilita, bi alderdiek Lankidetzaz Hitzarmen hau izenpetu dute, honako hauek bete dituztela:

XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen helburua da **AIARAKO UDALAK eta ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK** elkarrekin lan egiteko esparru bat eratzea, 2023ko ekitaldian **BABIO AZTARNATEGIAREN** ikerketa zientifikoak egiteko, metodo eta teknika modernoak eta diziplina anitzekoak erabilita. Lortuko diren emaitzak jendaurrean jarriko dira.

BIGARRENA.-

Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen jardueraren edukia honako hau da: Babioko aztarnategiaren ikerketa zientifikoaren jarduerak ekitaldi honetan dakartzan gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea.

HIRUGARRENA.-

2023 urterako lankidetzaz hitzarmen honi dagokion udal dirulaguntza 12.000,00 eurokoa da.

Hitzarmenaren xede den jarduera sustatzeko Udalak emango duen dirulaguntza aipatutako ikerketa zientifikoak dakartzan gastuak ordaintzeko erabiliko da, eta, hain zuzen ere honako gastuak ordaintzeko: indarrean dagoen araudiaren arabera, lanak egiteko langile teknikoak edo enpresa espezializatuak kontratatuzko gastuak, mantenu-gastuak, dokumentazioa, bulegoko materiala eta lanak egiteko behar den materiala.

Halaber, Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du lana egingo duten pertsonak lo egin eta garbitu ahal izateko tokia izan dezaten bilatzeko.

LAUGARRENA.-

Dirulaguntza honela ordainduko da:

•Aiarako Udalak emandako diru-laguntzaren% 80 hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko du.

Ordainketa egin baino lehen, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, edo, horren ezean, Udalarari baimena ematea informazio hori erakunde eskudunei eska diezaien.

•Gainerako %20 hitzarmen honetako BOSGARREN KLAUSULAN adierazitako dokumentazioa aurkeztu eta funtsen erabilera behar bezala justifikatu ondoren ordainduko da.



Aiarako Udalak edozein momentutan eskatu ahal izango du horren inguruan bidezkoztat jotzen duen informazioa.

BOSGARRENA.-

DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA Aiarako Udaletxean aurkeztu beharko da, **2024ko urtarrilaren 31** baino lehen; dena dela, gastuak dirulaguntza eman den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira, hau da, 2023an.

Eskatutako justifikazioa adierazitako epean aurkezten ez bada, dirulaguntza ezeztatuko da eta alde zuzenetik ordaindutako kopuruak itzultzeko prozedura hasiko da.

Udalaren diru-laguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publikoek zein pribatuek emandako diru-laguntza guztien adierazpena.
- b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria. Dena dela, instrukzio organoak modu interoperablean egingo ditu zerga betebeharrak eguneratuak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak dituela egiaztatzen duten ziurtagiriei buruzko kontsultak eta egiaztapenak, baldin eta eskatzaileek edo onuradunek ez badute horren aurka egiten. Aurka eginez gero, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU, eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu.

- c) Jardueraren garapenari buruzko dokumentazio hau:

- Egindako jardueraren memoria.

Jardueraren memorian hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, eta parte hartzeko datuak agertzen badira, datuak sexuaren arabera bereiziko dira.

- Jardueraren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, beste erakunde publiko batzuen eta zuzenbide pribatuko gainerakoen diru-laguntzak barne. Gainfinantzaketarik izanez gero, emandako diru-laguntzari dagokion zenbatekoa kenduko zaio.

- Diruz lagundutako diziplinak emateko gastu guztiak justifikatzen dituzten agiriak:

- Langileak kontratatzeko gastuak: nominen eta Gizarte Segurantzaren kopia, dagozkien ordainagiriak barne, diruz lagundutako jarduera egiteko kontratatutako langileei dagozkien TC-1 eta TC-2 agirien kopia.
- Gainerako gastuak: haiek jaulkitzeko legez ezarritako baldintzak bete behar dituzten faktura egiaztagarriak. Transferentzia bidez egin bada, ordainketaren frogagiria erantsi beharko da, edo fakturan bertan jaso beharko da dirutan ordaindu bada, jatorrizko zigilua edo sinadura duela.

- 2023. urtean aurreikusitako lanen eta erakunde horrek egindako lanen kopia bat.



SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honek 2023ko abenduaren 31 arte iraungo du.

ZAZPIGARRENA.-

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK publizitatea egiten duen orotan Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso behar ditu, eta publizitate horretan hizkuntza eta irudiak ez dira sexista izango.

ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa.

AIARAKO UDALA - AIARAKO UDALAK hitzarmen hau sinatu eta lortzeko erabilitako datu pertsonalak Udal jarduera orokorraren kudeaketa administratiboari dagokion Espediente Administratiboak izeneko tratamenduan sartuko dira. Arduraduna Eliza auzoko 3. zenbakian dago, 01476. Arespalditza (Araba). Telefonoa: 94539 90 13; posta elektronikoa: info@aiarakoudala.eus; IFK: P0101100F. Datu pertsonalak, hala badagokio, utzi ahal izango zaizkie honako hauei: erregistro publikoei, Administrazio Publikoko organoei, notarioei eta prokuradoreei, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-erakundeei, osasun-erakundeei eta/edo epaitegi eta auzitegiei. Pertsona interesdunak eskubidea du bere datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidaliko du Udalbatzaren helbidera, bere nortasuna egiaztatzen duen agiria barne, edo Udalbatzaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen izapide elektronikoa hasteko eskubidea du ere. Interesdunaren eta/edo haren ordezkariaren bidez lortu dira datuak, baita administrazio publikoen bidez ere. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo www.aiarakoudala.eus webgunera edo 945 39 90 13 telefonora deitu ahal da.

BEDERATZIGARRENA.-

ARANZADI ZIENTZI ELKARTEAK Hitzarmen honetan hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, diru-laguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzaz hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketa, zirriborro edo zuzenketarik gabe, dokumentu hau osatzen duten bost orrietako bakoitzean, eta konpromisoa hartu dute dokumentua goiburuan adierazitako tokian eta egunean betetzeko.

ALKATE-UDALBRUA.

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.

Alkate udalburuak eta idazkariak elektronikoki sinatutako agiria

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Sin.: Jokin Otamendi Azurmendi.

I.F.K. C.I.F. P0101100F



I ERANSKINA

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela frogatzen duten agiriak. DATU EGI AZTAGARRIAK. OPOSIZIOA.

Udal honek, eskura dituen datuen bitartekotza sistemen bidez, behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu zerga betebeharrak eguneratuta dituela eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuta dituela egiaztatzen duten ziurtagiriei buruz, sinatzaileak horren aurka egiten ez badu. Aurka eginez gero, behar diren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, laugarren klausulan aipatzen diren gainerako frogagiriekin batera.

Egiaztapen horren kontra bazaude, markatu X batez:

- Ogasunarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiriari (AFA) buruz Udalak kontsulta egin dezan kontra egiten dut.

- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eguneratuak izatearen ziurtagiriari buruz Udalak kontsulta egin dezan kontra egiten dut.

Oposizioaren justifikazioa.

Oposizioa eginez gero, beharrezkoa da justifikatzea kontra egiteko arrazoiak (3/2010 Lege Organikoaren 18. artikulua)

Data: _____

Elkartea: _____

Ordez kariaren izean: _____

Sin.. _____

Datu pertsonalak tratatzea legitimatuta dago interes publikoan egindako misio bat betetzean edo Aiarako Udalarari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EE 2016/679 Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan (2016ko apirilaren 27koa) eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitako moduan.



BIGARRENA.- Alkate udalburuari ahalmena ematea Hitzarmen hori sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Aranzadi Zientzi Elkarteari jakinaraztea.

8.- Hala badagokio, onestea Aiarako Udala Arabako Foru Kontratazioko Zentralak tramitatuko duen energia elektrikoaren horniduraren esparru-akordioari atxikimendua.

Karmele Poblacion Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du, eta euskaraz azaldu du akordio-proposamena. Horren arabera esan du oso epe laburrean hartu beharreko erabaki mordoia aurkitu dutela; kasu honetan, erabakia ekainaren 28a baino lehen hartu behar baitzen. Beraz, gaia udalaren osoko bilkuratik pasatzea eta atxikimenduarekin aurrera egitea erabaki dute, udaletxean ez dagoelako pleguak egiterik hornidura hau lizitzatzeko, eta gaineratu du kontratua bi edo hiru urterako izango dela.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, bozketa egin da, eta bertaratutako udalbatzako kideek aho batez puntu hau onartu dute (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10 bertaratu dira).

Eta horren arabera, eta,

IKUSI DA.- 2021eko apirilaren 22ko Osoko Bilkuran hartutako akordioaren bidez, Aiarako Udalak erabaki zuen 1/2015 Foru Arauak araututako Kontratazio Zentral horren bidez jasota daudenen ondasun, zerbitzu eta hornidurak kontratatzeke Arabako Foru Kontratazioko Zentralaren sistemari atxikitzea.

IKUSI DA.- Udal hau atxikita dagoela Arabako Foru Kontratazioko Zentralak 2023rako izapidetuko duen energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordioari eta akordio hori oraindik ere indarrean dagoela baina 2023ko abenduaren 31n amaituko dela. Beraz, beharrezkoa da berriro kontratatzea data horren ondoren hornidura izateko.

IKUSI DA.- Arabako Foru Kontratazioko Zentralak, duela gutxi Udal honi jakinarazi dio energia elektrikoaren hornidura zerbitzuaren esparru-akordio baten bidez kontratazioari ekingo diola, 2023ko abenduaren 31tik aurrera hornidurarako.

KONTUAN HARTU DA.- Udal honek interesa duela Arabako Foru Kontratazioko Zentrala energia elektrikoaren hornidura kontratatzeke tramitatzen ari den esparru-akordioarekin bat egiteko.

KONTUAN HARTU DA.- Kontratazio Zentrala arautzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2021 Foru Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak emandako eskumenaren arabera (lege horren bidez Espainiako Ordenamendu Juridikoari iraultzen zaizkio Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24 EB jarraibideak, 2014ko otsailaren 26koak).



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Bertan dauden zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzitik 10) aho batez hartutako ebazpenaren bidez Udalbatzak **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Aiarako Udala Arabako Foru Kontratazioko Zentralak izapidetuko duen energia elektrikoaren hornidurari buruzko esparru-akordioari atxikimendua onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorren Idazkaritza Teknikora bidaltzea, lizitazioa arautuko duten agirietan sartzeko behar diren agiri eta datuekin batera.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez dagoela, Alkate-udalburu jaunak saioa bukatutzat eman du hamarrak eta bost minutu direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, akta hau egin dut eta neuk, idazkaria naizen aldetik, hori egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hogeita seian.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Sin.: Prudencio Otegui Echevarría

IDAZKARIA,

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.